



## **LDEZ-REN AUTO ARGIGARRIA, “MERKATARITZA-ORDUTEGIEI” BURUZKO EBAZPENAREN (11/2009 espedientea) XEDAPEN-ATALARI BURUZ**

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak “merkataritza-ordutegiei” buruzko 11/2009 espedientean hartu zuen 2009ko azaroaren 24ko ebazpenari dagokionez (aurrerantzean Ebazpena), Auzitegiak **AUTO ARGIGARRI** hau eman du, enpresa hartzaileentzat deribatu diren betebeharren eduki eta irismena zehaztearren.

1. Ebazpen horren xedapen-ataleko BOSGARREN puntuan Centros Comerciales Carrefour, S.A. merkataritza-etxeari ezarri zitzaion *Ebazpen honen xedapen-atala EHAAn eta eskualdean gehien saltzen diren bi egunkaritako ekonomia ataletan argitaratzea, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita*. Puntu horri dagokionez, LDEAk honakoa zehaztu nahi du:

Betebehar hori Centros Comerciales Carrefour S.A. merkataritza-etxeak bakarrik bete behar du, zigor-espediente honetan zigortu den enpresa bakarra izan delako. Hori dela eta, merkataritza-etxe horri zuzenean eragiten dion Ebazpenaren xedapen-atala baino ez da argitaratu behar.

Horrenbestez, Ebazpena behar bezala betetzearren, honakoak izango dira argitaratu beharreko xedapen-atalaren puntuak:

**LEHENENGOA.-** *Adierazi egingo da espediente honetan egiaztatu egin dela Bizkaiko Lurralde Historikoan igande eta jaiegunetan irekitzeko egunak ezartzeko erabakia hartu zela, eta horrek lehia murriztuz zezakeela Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 1.1.a) artikulua adierazitakoaren arabera.*

**BOSGARRENA.-** *Centros Comerciales Carrefour S.A. enpresaren jokaerari dagokionez, bi jokabide-betebehar ezarriko direla erabaki da. Hona hemen:*

- *Amaiera itundua eskatu zuten enpresek proposatu zituzten eta antzemandako lehia-arazoak konpontzeko eta interes publikoa bermatzeko egokitzat jo diren konpromisoak betetzea (ebazpen honen 1. eranskinean azaldu dira).*
- *Ebazpen honen xedapen-atala EHAAn eta eskualdean gehien saltzen diren bi egunkaritako ekonomia ataletan argitaratzea, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Bete ezean, 600 €-ko hertsatzeko isuna ezarriko da atzeratutako egun bakoitzeko.*



**SEIGARRENA.-** Enpresei aginduko zaie LDEZn justifika dezatela aurreko ataletan ezarritako betebeharrak bete dituztela.

**ZAZPIGARRENA.-** LDEZ izendatuko da Auzitegi honek onartutako konpromisoak betetzen diren zaintzeko organo arduradun izateko.

Era berean, Ebazpenaren 1. eranskinaren edukia ere (amaiera itundurako aurkeztu ziren konpromisoei buruzkoa) argitaratu beharko da. Horri dagokionez, ez dira azalduko amaiera itunduaren prozeduran onartu diren aipatutako konpromiso horiek aurkeztu zituzten enpresen merkataritza-izenak.

2. Ebazpenaren xedapen-ataleko LAUGARREN puntuari dagokionez, bertan zehaztu beharko da Decathlon España, S.A.U., El Corte Inglés, S.A., Eroski, S.COOP., Ikea Norte, S.L., Leroy Merlin España, S.L.U., Media Mark Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A. eta Supermercados Sabeco, S.A. enpresek aurkeztutako konpromisoak, LDEAren iritziz, egokiak direla antzemandako lehia-arazoak ebazteko.

Konpromisoak onartzeak ez du eragingo, inola ere, konpromisoak aurkeztu dituzten enpresek eta bertako zuzendariak LDLren 1. artikulua hautsi dutela adieraztea. Ebazpen-erabakia baino ez da, eta horrek amaiera ematen dio zigor-prozedurari, LDLren 52. artikuluan aurreikusitako amaiera itunduaren bitartez.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 21a.

**LEHENDAKARIA**  
**JAVIER BERASATEGI TORICES**

**LEHENDAKARIORDEA**  
**JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA**

**KIDEA**  
**JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE**

**IDAZKARIA**  
**JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI**